IKASTOLAKO ALDIZKARIA
2001eko ekaina

# GURE GAUZAK

15 zk.

A. R. Olabide, Koop. Elk.
Tel.: 945150 640
Postasaila 571
01080 Vitoria-Gasteiz
e-mail: posta@olabide.com

## Olabide eguna



# Olabide Ikastolako EGUNA 2001

Argazkiek adierazten dutenaz gain ez dago askoz gehiago esaterik. Milurteko honetako lehen Olabide Ikastolako eguna ospatu egin dugu, eta oso oroimen atsegina utzi digu. Egindako apustu honek bere arriskuak bazituen (orain arte egiten ziren bi ospakizunak batean egitea, datak aldatzea, egun osoko jaia aurkeztea, e.a. ) eta alderdi guztiak kontutan izanda arrakastatsua izan dela esan dezakegu. Lasarte herriko auzokide batek aurten jende gutxiago egon dela esan dit, dirudienez aurten zirkulazio eta aparkamendu alderdiari dagokionez gutxiago molestatu baikenuen, eta ondorioz gure auzokoak jendetza gutxiago egon zela ulertu zuen. Ba oker zegoen, jendeak zioenez aurten inoiz baino familia, irakasle eta beste langile gehiago etorri ziren. DBHko gure ikasleen formaltasunari eta antolatzeko gaitasunari esker, Olabide ikastolako instalazioetan 800 auto inguru aparkatu genituen, eta inor ez molestatzea lortu zuten ere, beste urteotan, antza denez, gertatu ez den moduan. Ondorioz lehenik gure ikasleak txalokatu behar ditugu, egindako lan ona eskertzeko.



Eta ikastolako langileriari dagokionez bai ospakizunaren aurretik egindako lana eta egun bertan egindakoa ere eskertzea besterik ez zaigu geratzen. Guztia antolatzea, eskaini diguten laguntza barik ezinezkoa izango litzateke. Eskerrak ematen bukatzeko ezin gara ahaztu batzorde antolatzaile kideez. Ospakizunaren egunean, adi egon ziren abentura honetan aspaldi sartu zirenei esker egun hau arrakastatsua izan zen. Euren izenak aipatzea gustatuko litzaidake, baina hori egitea ez zidaten barkatuko. Dena den nortzuk diren badakigu eta hemendik ESKERRIK ASKO esatea baino ez zaigu geratzen.

Honako hau kontsumitu zen; 1.416 freskagarri pote, 600 garagardo,120 litro mosto; 180 litro ardo, 200 ogi; 2.500 tortilla pintxo, txorixo e.a.. 400 bazkari zerbitzatu genituen eta 250 bokata inguru. Gure ustez jaira 2.000 pertsona inguru hurbildu ziren. Hori ez da gutxi!.

Datorren urtera arte, eta ziur nago hobeto aterako dela!

No hay mucho más que decir que lo que las propias fotografías expresan. Hemos celebrado el primer Olabide Ikastola Eguna del nuevo milenio y nos ha dejado a todos un buen sabor de boca. Era una apuesta que tenía sus riesgos(unificar las dos conmemoraciones que se hacían hasta ahora, cambiar las fechas, plantear una fiesta para todo el día, etc.) y hemos de decir que ha sido un éxito en todos los aspectos. Recientemente me llegaba un comentario de un vecino de Lasarte que decía que este año había habido menos gente; por lo visto no molestamos tanto en el ámbito circulatorio como en el de aparcamiento entendiendo nuestro buen vecino que la afluencia fue menor. Pues no, según la referencia de los presentes nunca había venido tanta gente tanto a nivel de padres como de profesores y demás trabajadores. La formalidad y capacidad organizativa de nuestros alumnos de E.S.O. fue la responsable de que los 800 coches aproximadamente que aparcaron en las instalaciones de la ikastola no causasen los problemas que se han ocasionado otros años. Por lo tanto en primer lugar un fuerte aplauso para nuestros alumnos por el trabajo desarrollado.

En cuanto al personal de la ikastola, no nos quedan otras palabras que las del agradecimiento por el esfuerzo realizado, previamente y en el propio día. Hubiese sido imposible organizar todo ello sin su decidida colaboración y entrega. Para terminar con este capítulo de reconocimientos, una mención especial a los miembros de la comisión organizadora, que se embarcaron desde mucho tiempo antes en esta aventura y estuvieron al quite en el día de la celebración, para subsanar los pequeños fallos que íbamos teniendo, lo que permitió que la fiesta luciese por todo lo alto. Me gustaría decir sus nombres pero ello/as no me lo perdonarían que lo hiciese. De cualquier forma, todos sabemos quienes son y desde aquí no me cabe otra cosa que decirles: ESKERRIK ASKO.

Se consumieron, 1.416 latas de refrescos, 600 cervezas, 120 litros de mosto, 180 litros de vino, 200 barras de pan, 2.500 pinchos de tortilla, chorizo y demás. Dimos 400 comidas en el comedor y 250 en bocadillos. Calculamos que en total se acercaron a la fiesta unas 2.000 personas. ¡Ahí es nada!

¡Hasta el próximo año!, que seguro que saldrá mejor todavía.

**Iñaki Zubeldia Telleria**
ZUZENDARI OROKORRA

# Elkartasun astea

Aurtengo Elkartasun asteko gaia, arraza ezberdinetako jendea ezagutzea eta beraien herrialdeetan dituzten bizimoduetatik abiatuz,gure herrian dauden kultur aniztasunak onartzea eta errespetatzea izan da.

Horretarako aste osoan zehar materiala eta ekintza ezberdinak landu ditugu: bideoak, ipuinak, erakusketak, posterak, karetak, muralak, Mugarik Gabe elkarteko neskekin joku-saio batzuk egin , abesti afrikar bat ikasi,...

Hainbat ekintzen artean ere, 5.mailako ikasleek tresna erreziklatuen erakusketa bat prestatu zuten.

Asteari bukaera emateko, HH eta LH ko ikasle eta irakasleek, txanponez osatutako elkartasun kate bat osatu genuen, bukaeran denak elkarrekin ikasitako abesti afrikarra abestu genuelarik. Azken ekintzan jaso ziren txanpon guztiak (190.000pzta.), Ikastolak herrialde batzuen hedapena bultzatzeko berea egin duen proiektu baterako bidali zuen.



Aurten lehenengo aldiz, DBH ko ikasle eta irakasleek ere, aste hau ospatu dute hainbat ekintza antolatu zituztelarik : erakusketa ikusi eta landu, bideoak, Saharaui batzuekin elkarrizketak,...

Hurrengo urteari begira, urte osoko proiektu bat martxan jartzeko asmoa dugu, elkartasuna eguneroko gauza delako.

**Muskoa Sánchez**

## PASTORAL BATZORDEA

Aurten Pastoral Batzordeak, hainbat ekintza antolatu ditu:

**Abendualdiko ospakizuna:**

Abendualdiari bukaera emateko ospakizun bat egin genuen Ikastolan, hainbat jendek parte hartu zuelarik.

**Hitzaldiak :**

" Baloreetan hezitu" : Hitzaldi hau Jesus Mª Mújika hizlariak eman zuen. Jende ugari hurbildu ginen Ikastolako Areto Nagusira, eta hitzaldiak sortu zuen arreta eta interesa ikusita beste bi antolatu genituen, oraingo honetan Felix Placer hizlaria izanik eta jorratutako gaiak "kristau erlijioaren baloreak hezkuntzan" eta " fedean hezitu gaur eta hemen" izan zirelarik.

**Lasarten grabatutako ETBko mezak:**

Martxoan hiru asteburutan zehar ETBko mezak Lasarten egin ditugu.

Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoen laguntzari esker ondo jorratutako mezak izan dira. Aipagarriak dira egun hauetan zehar abesbatza ezberdinetatik jaso dugun aparteko laguntza, San Cristobal parrokiko abesbatza, Udaberria eskolania eta Ikastolako abesbatza.

**Katekesietako prestakuntza:**

Urtero bezala katekesien prestakuntzetan jardun du Pastoral Batzordeak. Jakinarazi nahi dizuegu hau antolatzeko, zuen laguntza behar dugula, bai katekista moduan, bai beste ekintza batzuk prestatzeko. Zuen laguntza eskertuko genuke.

Orain arte Pastoral Batzordeak prestatutako ekintzek izan duten erantzuna eskertzen dizuegu eta prestatzen ari garenak harrera berdina izango dutela espero dugu.

Actividades que Pastoral Batzordea ha organizado este año:

**Celebración del Adviento:**

Para terminar el Adviento hicimos una celebración en la Ikastola, en la que la participación de la gente fue buena.

**Conferencias:**

"Educar en valores":La conferencia estuvo a cargo de Jesus Mª Mújika, que reunió en el salón de actos de la Ikastola a numerosas personas. Dado el interés de las personas asistentes, se organizaron dos nuevas conferencias que estuvieron a cargo de Felix Placer,en las que se trató de los "valores religiosos cristianos en la educación"y "educar en la fe hoy y aquí".

**Misas de ETB en Lasarte:**

Durante tres fines de semana de marzo, celebramos las misas para la ETB en la parroquia de Lasarte.

Estas misas han podido realizarse gracias a la colaboración de algunos/as padres/madres, y a los coros de la Ikastola, la parroquia de San Cristobal y la escolania de Udaberria.

**Preparación de las catequesis:**

Como cada año la pastoral está organizando las catequesis y queremos pedir vuestra colaboración bien para la organización o bien como catequistas. Sin duda **agradeceríamos vuestra colaboración**.

Pastoral Batzordea os agradece la buena acogida que las actividades que se han organizado han recibido y esperamos lo mismo para las próximas. Mientras tanto, un saludo.

**Bitartean, agur bero bat.**

## Gabonetako kanpaina Ikasturtea 2000/2001

**"Bi heziketa mota daude: bata bizimodua irabazten erakusten duena eta bestea bizitzen"**

Elkartasunak bide ezberdinak ditu (diru laguntza, zerbitzua, justizia...), izen ezberdinak ere (ONGak, misioak, bolondresak...), kultura, erlijio, hizkuntza eta bizimoduak (Angola, Argentina, Maroko, Salbador, India...). Elkartasun bideak betiko kaleetatik eta zereginetatik kanpo ateratzen gaituzte, baina ez dira turismo bideak. Elkartasun bideak gaur egun modan jarri direla dirudi, baina hauek luzeak eta konprometituak dira , beraz, ezin dira erdibidean utzi.

Aurten ere elkatasunaren bideak gure Ikastolara iritsi dira. Egia esan, aspalditik jarrita gaude bidean, iadanik ba baitira 18 urte erronka honi aurre egiten. Beraz, aurtengo kanpaina, beste era batera bizitzen erakutsiko gaituen, beste pauso bat ematea izan da. Bide honetan jarraitzeak, urtez urte, eten gabe, konpromezu bat adierazten du, alde batetik beharrean aurkitzen diren ume, familia eta lurralde hauekiko hartu dugun konpromezua eta bestetik errealitate hauenganako bihotzberatasuna eta eskuak luzatzeko asmoa eta gogoa piztuko dituen heziketa baten aldeko konpromezua.

Egia da ezin dugula agian gehiegi egin, baina bakoitzak bere partetik jar dezaken ale horrekin zerbait egitea lortu dugu aurten ere. Eta zerbait hori asko izan daiteke, gure laguntza jasotzen dutenek horrela esaten eta bene benetan eskertzen digute, beraz, guk ere horrela baloratu behar dugu egin duguna.

Aurtengo Gabonetako kanpainan bildu dugun dirua eta hartzaileak zeintzuk izan diren honako hauek dira:

| ELKARTEA EDO ENTITATEA | ZENBATEKOA |
|---|---|
| PARQUE VILLA LICEO CÓRDOBA-ARGENTINA PROEIKTUA | 278.224 Pzta |
| FRANTZISKOTARREN MISIOLARIAK LARACHE-MARRUECOS | 200.000 Pzta |
| NAZIOARTEKO ELKARKIDETZA KARITAS | 200.000 Pzta |
| ESKU BATUAK. GOSEAREN AURKAKO KANPAINA | 200.000 Pzta |
| INTERMÓN. SALBADORREKO LARRIALDIA | 41.000 Pzta |
| **BATUKETA** / SUMA | 919.224 Pzta |
| Imprenta Matos Monreal gutunazalak | 8.700 Pzta |
| **Bildutakoa guztira** / Total recaudación | 927.924 Pzta |

Hartzaile guztien partetik esker beroenak Olabide Ikastolari hainbat urteetan ahaztu gabe emandako laguntzagatik. Eskerrik asko.

Josean Zubeldia

# Mayo cultural
# Maiatza Kulturala

Maiatzean ekintza kultural ezberdinak gozatzeko aukera izan zuten HH6ko gure haurrek.Lehenik, Ekainaren 8an Iruñako planetariumera egin genuen irteera.Goizean goiz autobusa hartu eta hirira heltzean Ciudadelako parkera abiatu ginen bertan hamarretakoa eta han dauden animaliak ikusteko asmoarekin. Indarrak hartu ondoren planetariumera joan ginen eta hango gidari baten laguntzaz haur guztiak areto nagusiko eserlekuetan jarri genituen zapaira begira. Bertan zegoen proiektagailu erraldoi batez eta ipuin baten laguntzaz,haur guztiak txunditurik geratu ziren zeruko izarrei begira ;ipuina entzun ondoren planetariumeko arduradunari haurrek hainbat galdera egin zizkioten eta gero poz pozik ondoko parkera joan ginen bazkaltzera eguraldi ezin hobeaz lagundurik.

Maiatzaren 15, 22 eta 23an, planetariumeko irteera zoragarria oraindik buruan genuela Arte Ederretako Museora joan ginen, eta bertako gidari baten laguntzaz museoko hainbat kuadro ezberdin ikusi genituen. Haurrek interes haundiz behatu zituzten kuadroak eta gidariaren galderei erantzun,eta han geuden irakasleok beraien komentario ugari entzun ahal izan genuen.

Azkenik, Maitzaren 25ean antzerkira joateko ordua heldu zitzaigun.Teatro Paraiso antzerkiak “Bihotz Bihotzez” antzezlana eskeini zigun Beñat Etxepare antzokian. Biolinjole eta zeharkako txirula baten laguntzaz, aktore-clown batek pailazo eta txori baten arteko istorio hunkigarri bat antzeztu zuten; haurrak eta irakasleok bete betean sartu ginen obran eta barre bat baino gehiago ere egin genuen.

Ikusten duzuenez, Maiatzean gure haurrek ez dute aspertzeko betarik izan!!



En mayo los alumnos y alumnas de 6º de educación infantil han tenido la oportunidad de disfrutar de diferentes actividades culturales.

Así el 8 de mayo disfrutaron en Pamplona de las actividades que para ellos estaban dispuestas en el Planetarium así como de los animales que en el parque de la Taconera y la Ciudadela se encuentran.

Teniendo todavía presente esta última salida a Pamplona el 22 y 23 de mayo tuvieron la oportunidad de conocer por medio de una visita guiada lasobras que encierra el Museo de Bellas Artes de Vitoria.

Finalmente el 25 de mayo en el teatro Beñat Etxepare tuvieron oportunidad de ver la obra ”Bihotz bihotzez” interpretada por la compañía Teatro Paraiso, donde un actor – clown representó una tierna historia entre un payaso y un pájaro.

Como podéis ver en mayo los más pequeños no han tenido tiempo de aburrirse.

## DBH 4. MAILAKO IKASLE GUZTIAK irrati ekipo oso baten irabazle
## NUESTROS ALUMNOS DE 4.º de secundaria ganan un equipo de radio para ikastola



Martxoak 29, apirilak 3, 4 eta 5 gure DBH 4. mailako ikasleak irratira eramateko aukera aurkeztu zitzaigun.

Radio Euskadik, aurten lehenengoz, ikasleak irratira eramateko programa berezi bezain interesgarria aurkeztu egin zigun. Honetan ikasgela osoa eraman eta Bilbon irratian bertan teldearen erdiak programa grabatzen zuen bitartean beste erdiak irratian lana nola egiten den ikusten zuen. Beraiek grabatutako saio hauek larunbat batzuetan,Aste Santu inguruan,eman zituzten “7 la Calle del Trinkete” irratsaioan.

Irratian zenbait lenguaia erabiltzen dira. Lenguaia hauen berezitasunak eta hauen konbinazioak sortzen du irrati-mezua : ahozkoa, musika eta isiltasuna, horri lotuz gero irudimena eta originaltasuna orduan eta arrakasta eta onarpen handia entzulegoan. Beraz, guzti hau kontutan izanda , hau da hizkuntza honetan trebatzeko aukera izan zuten, gehi irrati batek zer-nolako funtzionamendu edo bizitza duen, gehi horretan beraiek ere partaide izateaz gain protagonista izan ziren ordu batzuz. Ba esaten dudanez oso esperientzia polita izan zela baloratu genuen beraiekin joandako irakasle guztiok.

Gainera harro bueltatu ginen oso ondo portatu baitziren.

Eta hau gutxi balitz handik bidali zizkiguten korreo elektronikoz bertan ateratako argazkiak. Eta honekin nahiko ez balute edo, esperientzia honi bukaera emateko maiatzaren 26an Bilbon , BilboRock aretoan, jaialdi bat antolatu zuten eta bertan sari banaketa.. Esperientzia honetan parte hartu zuten ikasleen artean, 3000 ikasleren artean hain zuzen ere, bertan irratian ondo egon zirenei , gehien bozkatuak izan ziren programei eta beraien kriterioen arabera programa hoberenei sari zoragarriak banatu zizkieten. Lau sari eman ziren; hiru irrati ekipo osorik eta Port Aventurara bidaia. Gu bigarrenak gelditu ginen eta Ikastolarako irrati ekipo oso bat ekarri genuen , 200.000 pezetatan baloratutako irrati ekipoa.

Beraz eskerrak eman behar dizkiogu “Radio Euskadi”ri, Bizkaiko Foru Aldundiari eta bereziki hain ondo egon diren gure laugarren mailako ikasleei. Badirudi datorren ikasturterako asmoa dutela honetan jarraitzeko, horrela bada han izango gaituzte berriz prest grabaketetarako. Agian, ordurako trebatuak gaude jadanik gure irratiaz.

• • •

En este curso, Radio Euskadi con la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia , dio comienzo a una interesante nueva experiencia que consistía en llevar alumnos a la radio y con ellos grabar programas, que luego por supuesto se emitirían en el programa de los sábados de Radio Euskadi : “7 Calle del Trinkete”.

Nosotros no podíamos dejar pasar una oportunidad así y allí nos presentamos con todos nuestros alumnos de 4º de Secundaria . Aquí en clase preparamos los programas que luego iban a presentar . En la radio misma, además de grabar tuvieron la oportunidad de ver en directo cómo funciona este interesante medio de comunicación.

Después de las grabaciones nos enviaron las fotos que nos sacaron mientras participamos, además de las grabaciones que hicieron y por si esto fuera poco organizaron una fiesta de despedida en la que repartieron premios a los mejores participantes tanto por su comportamiento allí como por la calidad de los programas grabados.

Debemos felicitar a nuestros alumnos ya que quedaron finalistas entre los 3000 alumnos que participaron. Fueron segundos para ser exactos y consiguieron un magnífico equipo de radio para ikastola valorado en 200.000 pesetas.

Parece que el curso que viene tienen previsto repetir esta interesante experiencia si fuese así allí nos presentaremos otra vez, con el agravante de que quizás seamos ya expertos en este tema.

## olabide kultur elkartea

Hiruhilabete honetan, lan ta lan ibili gara Kultur Elkartean:

**Maiatzaren 6an Bastidan Haur Kantarien Eguna** ospatu genuen.

**Maiatzaren 13 eta 20an** ikastolako **jaunartzeak** izan ziren Seminarioan. Bertan gure dantzari, txistulari eta abeslariek parte hartu zuten.

**Maiatzaren 26an**, txistulari eta dantzariek **Lasarte**ko jaietan parte hartu zuten eta arratsaldean, **Legutiano**n, **Txistulari Txikiaren Eguna** ospatu zen.

**Ekainaren 2an** Gasteizko **Alde Zaharra**k euskal jaia bat antolatu zuen eta gure dantzari txikiek bertan parte hartu zuten.

**Ekainaren 10ean Valdegovia**n **Arabako Dantzari Eguna** ospatu genuen.

Eta guzti honetaz gain eta **ekainaren 4ean** ikusi zenuten bezala, gure haur guztiek ekitaldi txikitxoak eskeini zizkizueten **Ikastolako Egunean**.

Beraz, oporrak merezi ditugula uste dugu baina lasai, hurrengo urtean zuekin egongo gara berriro.

En este trimestre, hemos tenido un montón de actuaciones en la Asociación Cultural:

El **6 de mayo** celebramos en **Labastida** el Día Coral Infantil.

El **13 y el 20 de mayo** se celebraron las **comuniones** de la Ikastola en el Seminario y allí estuvieron nuestros dantzaris, txistularis y el coro.

El **26 de mayo**, nuestros dantzaris y txistularis participaron en las fiestas de **Lasarte**. Ese mismo día también, a la tarde, se celebró el **Día del Txistulari Txiki** en **Villarreal**.

El **3 de junio** el **Casco Viejo** de Vitoria organizó una euskal jaia y allí estuvimos con nuestros txikis de dantza.

Por último, el **10 de junio**, celebramos en Valdegovía **el Día del Dantzari Alavés**.

Aparte de todo esto y como ya pudisteis comprobar el **pasado 4 de junio**, todos/as nuestros/as chavales/as ofrecieron pequeñas actuaciones el **Día de la Ikastola**.

Así que creemos que tenemos unas buenas vacaciones merecidas pero el próximo año volveremos otra vez con las pilas puestas.

## Haur kantu txapelketa

Urtero bezala, Euskal Herriko Kantu Txapelketa ospatu da eta aurten txiki eta gazteei txanda iritsi zaie. Maiatzaren 19an gure Ikastolako hainbat kantari Argantzaungoko Lapueblara hurbildu ziren bakarlari, bikote eta talde bezala Arabako finalaurrean parte hartzeko.

Bertan gure Ikastolako partaideek 3 sariak eraman zituzten eta honekin batera Euskal Herriko finalera joateko aukera. Hauek izan ziren gure irabazleak:

LILURA taldea .............................."Lo kanta"
EGUZKI taldea .............................."Nere buruaz"
ANE RUIZ DE GORDOA bakarlaria ............."Gatu eta sagu"

Hiru hauekin, ekainaren 9an, Hernanira joan ginen eta bertan... gure DBH 3. mailako neskaz osatutako LILURA Taldea TXAPELDUN suertatu zen.

Beraz, lerro hauetatik ZORIONAK Lilura taldeari eta nahiz eta saririk ez jaso, parte hartu zuten guztiei oso ondo egin zutelako.

• • •

Como todos los años se ha celebrado el Concurso de la Canción Vasca. Este año les ha tocado el turno a los peques y jóvenes. El pasado 19 de mayo varios cantores/as de nuestra Ikastola se acercaron a Lapuebla de Arganzón para participar como solista, dúo o grupo en la semifinal de Alava.

Allí, varios/as de nuestros/as alumnos/as se llevaron los 3 premios y con ello la oportunidad de participar en la Final de Euskal Herria. Estos fueron nuestras ganadoras:

Grupo LILURA .............................."Lo kanta"
Grupo EGUZKI .............................."Nere buruaz"
ANE RUIZ DE GORDOA solista ................ "Gatu eta sagu"

Así el 9 de junio fuimos a Hernani y allí... nuestras chicas de 3º de la E.S.O. (grupo LILURA) resultaron GANADORAS.

Por ello y mediante estas líneas, felicitamos al Grupo Lilura y a todos/as los participantes que aunque no ganaron ningún premio, lo hicieron estupendamentel.

ZORIONAK GUZTIOI !!!

## olabide web




Olabideweb esta en la red desde hace mas de 100 días, esta página web tiene tres principales apartados: *www.olabideweb.go.to*, que es la página principal, *www.eolabideweb.es.fm* donde se accede a olabideweb en euskera, y *www.olabideweb.egunkaria.go.to* donde se encuentra la edición completa de este mini egunkari. Aitor Eraña describía así a la página web:

> *"OlabideWeb está vigente en la red desde el 8 de Febrero del presente año. En esta página web podemos hallar desde encuestas y foros de opinión hasta cómics sobre nuestros profesores y los acontecimientos más recientes de Olabide, pasando por entrevistas, anuncios y "olerkis" por cortesía de los colaboradores de Olabideweb. El principal objetivo es cubrir las necesidades de los alumnos, a la vez que expandir el Euskera hacia otro horizonte como es la red. Todos son libres de mandar sus propuestas, ocurriencias y demás para ser publicadas en Olabideweb."*

Ahora que se acaba el curso y la página web cierra por vacaciones, es momento de dar las gracias a todos aquellos que han visitado y han participado en la página. A Aitor Eraña por ceder sus comics, a Ainhoa Villaverde, y tambien a Arrate, Amaia y Mireia que han conseguido que el "Egunakari" funcione. También darle las gracias a Guti por aguantar todo lo que ha tenido que aguantar y a Arantza Gz. por ayudarnos a que la web tenga cada día un poco más en euskera. ¡Hasta septiembre!



# EUSKARAREN TXOKOA

Kaixo hirugarrenez Olabideko euskalzale eta euskaldun guztioi !!! Txoko hau irekia dela gogoratu nahi dizuegu eta nahi duen guztiak sartu eta bere gustuko lukeena gehitzeko, kentzeko, aldatzeko ... aukera duela jakin ezazue. Euskara hamaika modutan eta eratan bultza eta erabil daiteke, eta Anje Duhalderen kantu eder batek dioen bezala: "..maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago ..." Euskara goratu eta goretsi, zein eder, zein polit den esatea baino hobe dugu euskaraz mintzatzea, berba egitea, solastea .. hitz egitea. Euskara erabilia izateko sortu genuen euskaldunok, komunikatzeko, maitatzeko, abesteko, ...

## Esaera zaharrak :

**Beha lehenik, mintza azkenik**
Honek zer esan bahi duen, aurrena entzun eta ikusi egin behar dela, egoera apur bat aztertu, eta ondoren hitz egitea komeni dela. Modu honetan, lelokeria, aurriritzi eskas eta arazo gutxiago egongo lirateke.
Esaera zaharrak aspaldikoak omen dira, hau behintzat oso zaharra dugu, Oihenartek jasoa baita orain dela 400 urte inguru.

**Nekatzen da emailea eta ez hartzailea**
Badakigu denok dugunetik emateak on egiten digula, baina zenbaitetan eman ostean esker txikienik ere jasotzen ez denean aspertu egiten gara baina jasotzen duenak berriz ez du horrelako nekerik, ederki bizi da jaso eta jaso, kalean esan ohi den bezala ona bai baina tonto-tonto ere ez.

**Aita Raimundok , zer esango luke ?** Ekainaren 3an Olabide eta Urgatzi egunak batu eta Ikastolaren jaia ospatu genuen, hainbat eta hainbat ekitaldi izan ziren, ekintza kulturalak zein kirol jarduerak. Raimundori polit irudiuko zitzaiolakoan gaude, goizetik euskaraz eginiko meza, dantza eta abesbatzak, txistulariak eta kantariak, bazkalostean ipuin kontalariak eta bertsolariak. Euskal giroa nonahi, eta haur ugari euskaraz, egia esan haur eta gazteek ez zuten Raimundo eta beste askok nahi beste hitz egin euskaraz baina ari garela uste dugu, eta arituta lor daiteke, aritu gabe zaila izan ohi da ezer lortzea.

**Euskara interneten , euskaldunak ere modernitatean !**
Aurreko bi aleetan hainbat helbide elektroniko aipatu genituen, bai hezkuntzari buruzkoak eta baita hizkuntzari,euskarari, buruzkoak ere, hedabide zein bilatzaileak. Aipatzeaz gain, kritikatu ere kritikatu genituen Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundiko web-orrien euskararekiko jarrera lotsagarria.

Oraingoan www.euskaltzaindia.net orria aipatuko dugu berriro, berrikuntza interesgarriak egin baitituzte, *jagonet* hizkuntza kontsulta eta aholku zerbitzua nabarmentzen delarik, zalantzak argitzeko tresna bikaina.

Bestetik, bada irekiberria den beste helbide interesgarria: www.zientzia.net Zientzia eta teknologiari buruzko web-orria, bertan 2604 artikulu aurki daitezke. Artikuluak eguneratzen eta gehitzen joango dira eta gai ugari dituzue ikusgai: teknika, lurraren eta bizitzaren zientziak, espazioa edota ingurugiroa, informatika, fisika, kimika, matematika, osasuna eta gai orokorrak. Web-orri honetan sartzen denak, artikuluez gain, dosier interesgarriak ditu, zientzia hiztegia ere, eta baita Elhuyar aldizkaria ere klikatu daiteke bertan.

## Euskara hobetu asmoz

Azkenengo alean arau jakin baten inguruan aritu ginen baina oraingoan hainbat arau edota arautxoen inguruan arituko gara. Badira orrialde honetan zenbait hitz azpimarratuta, orain banaka-banaka aztertuko ditugu.

**EUSKARA:** hau da erabili beharreko hitza, nahiz eta askok eta askok eusk**E**ra hitza ahotan eduki, eta egia esan, erabilera arruntean edo ez-formalean ez dago arazorik baina modu formal batean erabili nahi badugu eusk**A**ra erabili behar da. Hala ere, batzuentzat harrigarria izango da Euskaltzaindiak hau agintzen duen bitartean bere aldizkari ofiziala Euskera deitzea, izena mende hasierakoa da, eta horrexegatik mantendu dute.

Bestetik gogoratu era berean hizkuntzei buruz ari garenean:
*erdara*, *gaztelania*, *ingelesa* eta *frantsesa* eta ez erdera, gaztelera, ingelera, eta ezta frantsesera edota frantziera ere.

3 alea

**Hamaika:** Hamaika izanik ere esamolde honek asko, ugari, anitz esan nahi du. Euskaldunok, hamaika zenbakia erabili ohi dugu asko adierazteko.
*Hamaika lagun etorri ziren*, normalean pertsona asko etorri zela esan nahi da, baina baliteke kasu zehatzen batean hamaika izatea, baina orokorrean asko, ugari esan nahi da.

**Solastea**: Solas egitea, hitz egitea, berba egitea guztiak dira bat, esanahi bera dute.

**Ekainaren 3an:** Hau da data jartzeko era egokia:
*2001eko ekainaren 1ean joan ginen ...*
*2001eko ekainaren 1a da gaur ...*
*Gasteiz, 2001eko ekainaren 2a* - Lekuizena deklinatu gabe.
*Gasteizen, 2001eko ekainaren 2an* – lekuizaena deklinatuz gero datan ere deklinabide kasu bera ipini behar dugu, non kasua bietan.
Modu hauetan berriz gaizki dago:
*2001eko ekainak 10, 2001eko ekainak 12a (honela ez)*
ekainaK bakarrik koma artean dagoenean idatz daiteke, adibidez:
*Gaur, maiatzaK 17, jai da Orontzen(honela bai)*

**Ospatu**: Ospatu ospatu jai eta urtebetetzeak ospatzen dira baina ez bilera edo ikastaro edota halakorik.

**Jarduerak:** Azkenean bai! Azkenean erabaki zuten iharduera edo jarduera artean eta *jarduera* da hitz egokia, nahiz eta bere aditz trinkoa dihardu, dihardute ... izan.

**Nonahi**: Modu honetara idatzi behar da eta hau bezala:

| BAI | EZ |
|---|---|
| Zernahi | *zer nahi* |
| Nornahi | *nor nahi* |
| Nolanahi | *nola nahi* |
| Nonahi /non-nahi | *nonnahi* |
| Zenbanahi / zenbat-nahi | *zenbatnahi* |
| Nondinahi / nondik-nahi | *nondiknahi* |

**hitz egin**: *Hitz egin* bai, banatuta eta ez hitzegin eta ezta hitzegitea ere.

**Baita....ere**: Segida bati edo hitz multzo bati beste elementu bat gehitu nahi diogunean elementua *baita* eta *ere* tartean jarri behar da.
*Gaur Maite eta Miren etorri dira, baita Unai ere.(bai)*
*Gaur Maite eta Miren etorri dira, Unai baita ere.(ez)*
*Gaur Maite eta Miren etorri dira, baita ere Unai.(ez)*
*Gaur Maite eta Miren etorri dira, baitereUnai.(ez)*

**Baitituzte**: Dagoeneko ez da *bait da, bait dituzte* eta horrelakoak idazten. Gaurregun dena lotuta idazten da:
Bait+dituzte=Baitituzte Bait+gara=Baikara Bait+zara= Baitzarae
Bait+luke= Bailuke Bait+haiz=Baihaiz Bait+naiz= Bainaiz

**Zerbitzua:** zerbitzua eta ez serbitzua edo zerbitsua edo..... *zerbitzua!!!*

**Edota**: Edota dena batera eta ez edo eta, edo-eta, edoeta honetan

**Ostean**: Hitz hau berez bizkaiera izanik ere, euskalkietako hitz gehienak onartuta daude euskara batuan. Oso erabilera murritza duten hitzak dira batutik at gelditu bakarrak, baina horrek ez du esan nahi gaizki erabiliak daudenik, baina baturako edo ofizialki idazteko ez dira egokiak nahiz eta hitz jator eta osoki euskaldunak izan.

**Bera**: Bera ez da berdina, berdina ez da bera. Hau azaltzeko adibide garbi bat erabiliko dugu:
*Nire anaiak eta nik kotxe bera dugu.*( Biok erabiltzen dugun kotxea.)
*Txinan dudan lagun batek eta nik kotxe berdina dugu.*(Berak Txinan eta nik Euskal Herrian baina modeloa berdina.)

**EsaNahi**: Hau da idazteko modua elkartuta eta **N** bakar batez. Hala ere, *hitz honen esanahia* .....*da* eta *nik hori esan nahi* nuen bereiztu behar dugu.

**HonEtan**: Hauxe da bai idazteko era, ia beti hontan esaten badugu ere **E** hori ez dugu ahaztu behar idazterakoan.

# URGATZI KIROL ELKARTEA

Kurtso amaierarekin batera, Urgatzik denboraldiari ere amaiera eman dio. Urtebete gehiagoz, gustokoen duzuen kirola Ikastolan praktikatzeko aukera eskaini zaizue.

Hamaika zarete urtez urte kirol zehatz bat egiten duzuenok edo eta besteren bat ezagutu nahian urte batetik bestera ekintzaz aldatzen duzuenak. Hala ere, oraindik asko zarete arrazoi bat edo bestegatik gure ekintzetan parte hartzen ez duzuenok. Hemendi gutxira, hurrengo urteko ekintzen eskaintza bidaliko dugu zuen etxeetara eta konprobatu ahal izango duzue kirola egiteko aukerak ugariak direla . Eskeintza ondo aztertzera eta 2001/ 2002 denboraldian Urgatziko partaide bat gehiago izatera animatzen zaituztegu.

Bestalde, Olabide Egunean bizi izan zen giroa goraipatu nahi dugu eta batez ere Ikastola osatzen duten partaide guztiek batera ospatu izana ( Kultur Elkartea, Urgatzi Kirol Elkartea, Irakaslegoa, ikaslegoa, administrazioa, bazkideak, bazkide-ohiak, etab), beste urtetan egin den banaketa alde batera utziz, elementu bakoitzari duen garrantzia emanez.

Amaitzeko, mila esker zuen arretagatik eta gugan sinesteagatik.

Con el final de curso nos llega el término de otra temporada más en Urgatzi. Un año más hemos seguido ofreciendo la posibilidad a cada un@ de vosotr@s de poder realizar vuestro deporte favorito dentro de la Ikastola. Much@s sois l@s que un año tras otro repetís deporte o decidís cambiar a otro con el ánimo de conocerlo. Pero todavía sois much@s quines por un motivo u otro no tomáis parte en ninguna de ellas. En breve os llegará a vuestras casas la oferta extraescolar del próximo curso y veréis que las opciones deportivas son numerosas. Desde aquí os animamos a que la estudiéis y que en la temporada 2001 / 2002 forméis parte de Urgatzi.



Por otro lado queremos destacar el acierto en la celebración del Día de Olabide de manera conjunta de todos los estamentos de Ikastola ( Asociación Cultural, Asociación Deportiva Urgatzi, profesorado, alumnado, administración, soci@s, ex -Soci@s, etc) dejando atrás las celebraciones por separado. Con ello queremos unir todas las partes de Ikastola, donde ninguna es independiente ni complementaria, sino que todas son igualmente necesarias.

Para finalizar, daros las gracias por vuestra atención y por haber confiado en nosotros.

# IKASLEEN TXOKOA:

## Egun bat gehiago

Argazkian ikusten duzuen gure ikasle hau, DBH 4. Bko Aritz Arrizabalaga da. Eta bertan Literatur sari bat jasotzen ari da 20.000 pezetakoa hain zuzen ere. Ba al dakizue zergatik? Aniturri literatur lehiaketan bere “Egun bat gehiago” ipuina aurkeztu eta irabazle irten zen . Zorionak Aritz! Segi horrela.

Este alumno que vemos en la foto es Aritz Arrizabalaga de 4º B, y lo que está haciendo en esos momentos es recoger un premio de 20.000 pesetas por haber quedado finalista en el concurso literario de Aniturri, con su obra “Egun bat gehiago”. Desde aquí sólo queremos felicitarle y desear que siga así.



## Elkarrizketa — Iosu Sarriegi eta Jordi Cruyft

**Kazetaritza ere gustukoa dute gure ikasleek. Ondoren aurkezten dugun elkarrizketa hau laugarren mailan dauden gure ikasle batzuek Iosu Sarriegi eta Jordi Cruyffi egien zieten.**

**Ea ba zer kontatzen diguten!**

**1.-Gazteen artean euskara galtzeko zorian dagoela uste al duzue?**

I.S.: Batzuetan bai. Nire ustez gehiengo bat erderaz aritzen da eta. Baina saiatu behar dugu gure artean euskaraz hitz egin eta euskara aurrera eramaten.

**2.-Futbolarien artean badaukazue aukera euskeraz hitz egiteko?**

I.S.: Ez da erraza hainbeste atzerritaz egonda, baina dakigunon artean egiten dugu.

**3.-Txikitatik egiten duzu euskaraz?**

I.S.: Bai, jaio nintzenetik! Erdera baino euskara gehiago egiten dut nik.

4.-Korrika Eguna, Euskararen aldeko egunak eta horrelakoak gehiago bultzatu beharko lirateke?

I.S.: Nik uste dut Korrika adibidez nahi bultzatzen dela. Iristen den leku guztietara parte hartze handia dago eta. Horrelakoetan lan handia egiten ari dela iruditzen zait.

5.- Orain zuen ogibideari buruz galdera batzuk ere.

UEFAn hain urrun iritsiko zinetela pentsatzen zenuten?

**J.C.: Ez, egia esateko ez. Gure ametsa zen baina ez genuen uste hain urrun iritsiko ginenik. Askoz jota “ronda” pare bat pasetzea pentsatuta genuen, baina inoiz ez hain urrun iristea.**

6.- Gasteizko futbol zaleak ongi erantzuten dio taldea egiten ari den lanari?

**J.C.: Bai, UEFA aurrera doan heinean erantzunkizuna handitzen doa, hala ere, lehenengo partiduetara jende gutxi joaten zen Mendizorrotzara gu ikustera. Baina, orokorrean bai futbolean eta baita saskibaloian ere jendea oso ongi erantzuten ari da.**

7.- Zein izan da jokatu duzuen partidurik garrantzitsuena?

**J.C.: Milanen, Inter-en kontra jokatutako partidua, non Inter lehiaketatik kanpo utzi genuen. Hori bai ametsa!!**

8.-Noiz hasi sienten futbolean jolasten?

**J.C.: 7 urtekin club baten sartu nintzen.**

**I.S.: Txikitatik ikastolan, geroago Lazkaoko klubean.**

9.- Zuen urratsak jarraitu nahi dituzten guztiei zer gomendio?

**J.C.: Gaitasuna oso garrantzitsua dela baina soilik horrekin ez zarela futbolaria bihurtzen.Horretarako burua**



**ere prestatu beharra dago ere, bizitzaren momentu askotan krontolatu beharra dago, adibidez gaua ezagutzean eta gustoko duzunean lagunekin eta irtetzea.**

10.- Futbolariak izango ez bazinete zer gustatuko litzaizueke izatea?

**I.S.: Ni , neu injenieritza ikasten ari naiz, baina ez dakit noiz bukatuko dudan. Ja, Ja, Ja, ...egunen baten futbolari izatera ailegatzearekin konformatzen naiz.**

11.- Zuen futbolari karrera amaitzean zer gustatuko litzaizueke egitea edo izatea?

**I.S.: Saiatuko gara futbolarekin zer ikusia duen zerbaitekin jarraitzen, umeak irakasten edo...**

12.-Futbolari baten bizitzan zer da gogorrena?

**J.C.: Hain da polita futbolari bat izatera iristea, ez zaizula iruditzen gogorra denik. Gainera guk gustokoa dugun gauza batetan aritzeko zoria daukagu eta hori gaur egun oso garrantzitsua da eta zaila da lortzen.**

13.- Zer aldatuko zenukete gaur egungo futboletik?

**J.C.: Guztia! Edo ea guztia! Lehenengo, gaur egun futbola ez dago kiroltzat hartuta, negoziotzat baizik. Nik jolastea dut gustokoa. Beste guztia soberan dago edo beharko luke egon behintzat.**

14.- Zein da zure ametsa?

**I.S.: Nik neurea bete dut, lehenengo mailan jokatzea.**

15.- Hiri bat?

**I.S.: Donostia**

**J.C.: Bartzelona**

Amaia Sánchez • 4 A - Marta Montoya
4 E - Maider Grajaels • 4 A

AMAGOIA AGIRRE • DBH 3. D




TANIMALS

AITOR I. ERAÑA
DBH 4. B



IKASLEEN TXOKOA:

## Cuento infantil

### SECUESTRO

*Ya me dijo mi madre ... "Billy, no hagas caso de los extraños, no hagas caso de los extraños"...¡ Pero aquel tío de la gabardina tenía el cromo de aquel bateador tan famoso de los "Socks"! ¡ Una reliquia que sólo unos agraciados tenían en su poder! ¡Y yo tenía la promesa de ser uno de los agraciados! Pero, cuando quise darme cuenta, estaba dentro de un cochazo negro, con la mano del de la gabardina envuelta en un pañuelo que olía fatal...Cuando desperté me encontré maniatado en un sitio oscuro, que no sé por qué tenía un no sé qué familiar. Ante mí se presentó el raptor...*

*- ¡Eh, tú!¿Quién eres?¿Por qué me has traído aquí?¿Dónde está mi cromo?-le pregunté.*

*- Todo a su tiempo...Yo sólo cumplo órdenes de alguien que está muy interesado en ti...-me dijo con voz ronca y misteriosa.*

*- ¿Sabes lo que le digo yo a tu jefe?-le hice un ademán de que se acercara con el dedo índice, para susurrarle algo, y cuando lo tuve al alcance ¡ÑAC! le mordí una oreja. Chillaba como una nenaza...*

*- ¿Me "vaj" a "jaltar"?¿Eh?¿Eh?-le dije como pude.*

*- ¡Lo que te voy a soltar va a ser un guantazo de los de agárrate y no te menees, rata!¡Suéltame la oreja o te...!*

*- ¿O qué, Mr. Robins?- entró alguien que encendió la luz mientras decía estas amenazantes plabras. Rápidamente, solté al subordinado, y con cara de asombro, me dirigí al recién llegado.*

*- ¡Papá!¿Por qué demonios me has raptado?*

*- ¡Hijo, te dije que estuvieras en casa a las diez de la noche!¡A las diez y uno no estabas aquí, así que mandé a mi guardaespaldas a buscarte. ¡Sabía que te negarías, así que tuve que organizar esto, y traerte a tu habitación!*

*- ¡Papá, para ser el presidente de los E.E.U.U., eres un loco maníaco!*

**AITOR I. ERAÑA • DBH 4. B**



**ILUSTRACION: Mikel Fernández de Las Heras • BATX. 2. A**